

## *4- BEZERO-SEGMENTAZIOA*

Orokorrean, gure zerbitzua bi bezero multzoei zuzenduta dago. Alde batetik, ingurumena zaindu nahi duten pertsoneri, eta dirua aurreztu nahi duten alor sozio-ekonomiko erdi-altuko pertsoneri zuzenduta dago, eguzkiko-plaka nahiko garestia dela kontuan hartuta. Hala ere, etorkizunean, gure produktuen eskuragarritasuna errazagoa izatea nahiko genuke, herrialde desberdinen diru-laguntzak edo aseguru desberdinen bitartez, mundu osoko herrialde gehienak askoz gutxiago kutsatu dezaten, baita bertako herritarrek garraio pribatua askatasun osoz erabiltzeko gai izan daitezen. Hori esan eta gero, produktu hau jende helduetarako zuzenduta dago, kontzientziatuagoa egoten direlako, nolabait munduarekin erlazio estuagoa dutelako gazteek baino. Atal hau bukatzeko, esan dezakegu eguraldi ona egiten duen zonaldetan eraginkorragoa dela, hau da, eguzkiko plaka energia hartzeko eguzkia beharko duelako.